

HUHEZI

ETHAZI BERRIKUNTZA- EREDUAREN EBALUAZIOA EAEko LANBIDE HEZIKETAKO ZENTROETAN

Tknika-ren eskutik

2020ko maiatzaren 22an



Aitziber Sarobe Egiguren
Nerea Lopez Salas
Eugenio Astigarraga Echeverria


AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
2. AURREKARIAK	3
3. XEDEA.....	3
4. HELBURUAK.....	3
5. IKERGALDERAK ETA HIPOTESIAK	4
6. METODOLOGIA	4
A) Datu bilketa eta garbiketa	6
B) Datuen trataera	6
7. EMAITZAK.....	7
8. ONDORIOAK	16
9. ETHAZI-EREDUAREN EBALUAZIO JARRAIA EGITEKO GAKOAK	18
ERANSKINA I	19

1. SARRERA

Lanbide Heziketarako ETHAZI berrikuntza-estrategia 2013-2014 ikasturtean abiatutako zen eta pixkanaka pixkanaka EAEko Lanbide Heziketako etapa osora ari da zabaltzen (1. Irudia). Etapa osoari eragiten dion hezkuntza-berrikuntza prozesu hau Tknika Lanbide Heziketako Ikerketa eta Berrikuntza zentroa ari da kudeatzen bertatik bideratzen diren formazio eta jarraipen-prozesuei esker.

1. Irudia: Ikastetxe eta Zikloak ETHAZIn (ezk.) / Ikasleak eta Irakasleak ETHAZIn (esk.)



Iturria: [Tknika-tik egokitua](#)

Urte hauetan egindako lana baloratzea ezinbestekoa da egindakotik aurrera begirako ondorioak atera nahi badira. Horregatik, eta ETHAZI hezkuntza-ereduaren diseinuan, eta batez ere inplementazioan, irakasleen lana funtsezkoa delako, ikastetxeetako zuzendaritza-taldean, irakasleen eta ikasleen ahotsak jasotzea ezinbestekoa da prozesuaz hausnartzeko.

Lanbide Heziketa? etengabe garatzen eta birmoldatzen doan errealitatea denez, prozesu horretan lagungarri zein oztopo diren adierazleak eta gakoak aurkitu eta ezaugarritzeko ahalegina egin zen iaz egindako ikerketan, eta hein batean, helburuak lortu zirela esan daiteke. Baina, iazko ikerketaren diseinuan, datu bilketan eta baliatutako tresnetan gaintitu beharreko zailtasunak eta hutsuneak identifikatu ziren, horrek beharrezko datuak jasotzea zaildu zuelarik. Hala, aurten egindako lanak hutsune eta gabezi horiek gaintitzea du helburu.

Aipatu behar da ikerketa hau ezin izan dela nahi bezala burutu ikasturtearen erdian ikasturteko martxa ez ezik, guztion bizimodua hankaz gora jarri duen Covid-19 koronabirusak eragindako pandemiaren eraginez. Txostenean jaso da zer egin den eta zer gelditu den egiteke, baina egin ahal izan denetik ateratako ondorioak esanguratsuak direla esan liteke.

2. AURREKARIAK

Txosten honetan aurkezten den ikerketa 2019-2020 ikasturtean egindako lanaren jarraipena da. Ikerketaren azken helburua EAEko Lanbide Heziketako etapan gauzatzen ari den ETHAZI berrikuntza-ereduaren ebaluazioa egiteko prozedura eta tresnak sortzea izanik, iazko ikasturtean horretarako oinarriak finkatu ziren, baina hobetu beharreko hainbat aspektu identifikatu ziren eta horren ondorioa da aurtengo ikerketa.

Aipatu bezala, ikerketaren izaera eta eredia definitu ziren eta hartzaileak ere identifikatu ziren. Baina, hartzaile horiek iaz egindako galdeketetan ez zuten erantzun-maila berdina erakutsi: enpresa instruktoreengana ez ginen behar bezala iritsi eta ikasleen ahotsa ere ez zen nahi bezala jaso. Hala, prozesua doitu eta birpentsatu ez ezik, tresna berriak sortzeko beharra ikusi zen. Aurtengo ikasturtean hutsune horiek betetzeko ikerketa-proiektua diseinatu eta gauzatu da - arestian aipatutako ustekabeak baldintzatuta-, eta ikerketak emandako emaitzak jasotzen ditu txosten honek.

3. XEDEA

Lanbide Heziketan Tknikaren eskutik diseinatu eta garatzen ari den ETHAZI deitutako berrikuntza-ereduaren eragina aztertu eta baloratzeko ebaluazio-prozedura eta ebaluazio-tresnak doitzeari; berrikuntza-prozesu honetan lagungarri izan daitezkeen gakoak identifikatzeari begira.

4. HELBURUAK

Helburu Orokorra:

ETHAZI berrikuntza-ereduak EAEko Lanbide Heziketako zentroetan eta bertan ikasketak burututako ikasleengan izan duen eragina neurtzeko ikerketa-prozedura eta tresnak doitzeari.

Helburu Operatiboak:

- ETHAZI ereduaren oinarri didaktiko-metodologikoak baloratzeko ikerketa-prozesua doitzeari.
- ETHAZI ereduaren oinarri didaktiko-metodologikoak baloratzeko ikerketa-tresnak fintzeari.
- Ikasleek ETHAZI-ereduko duten hautematea aztertzea eta ondorioak ateratzea.
- Ikasleek ETHAZI bidez landutako ikaste-irakaste prozesuen inguruan duten iritzia baloratzea eta behar diren ondorioak ateratzea.
- Enpresetako eta ikastetxeetako praktiketako tutoreek ETHAZI-ereduan aritu diren ikasleekiko hautematea aztertzea eta ondorioak ateratzea.
- ETHAZI-ereduan ikasketak egin dituzten ikasleek euren praktiken inguruan duten iritzia baloratzea eta behar diren ondorioak ateratzea.

5. IKERGALDERAK edota HIPOTESIAK

Ikerketaren helburu nagusiei begira, aurten doitu nahi ziren galderak eta hipotesiak dira:

IKERGALDERAK:

1. Zein da ikasleek ETHAZI berrikuntza-ereduarekin duten hautematea? Eredu honek euren formazioan duen eragina zertan antzematen dute?
2. Zein da enpresa-instruktoerek ETHAZI berrikuntza-ereduarekin duten hautematea? Antzematen dute eredu honek ikasleen formazioan eraginik duen? Zertan?

HIPOTESIAK:

- 1.1 ETHAZI-ereduan dabilzan ikasleak motibatuagoak daude, eta ETHAZI metodologiaren balorazio positiboa egiten dute.
- 1.2 ETHAZI-eredua baliatzen duten zentroetan lan egiten duten ikasleek hobeto baloratzen duten euren ikaste-prozesua bestelako metodologiek dabilzanean aldean.
- 2.1 ETHAZI-ereduan ikasitako ikasleak ikasketak bukatutakoan lanerako "prestatuago eta prestuago" daude.

Covid-19 koronabirusak eragindako egoera dela eta, aurtengo ikasturtean Lanbide Heziketako ikasleek ezin izan dituzte euren praktikak lantokietan egin, bertan bera utzi zituelako Hezkuntza Sailak. Praktikak egiteko enpresa edota lantegietako instruktoeren egoera ere berezia izan da aurten, praktika aldian, udaberriaren eragindako konfinamenduak praktikak itxi edota jardunaldi egokitueta lan egitera behartu dituelako. Hori dela eta, gure 2. ikergaldera ezin izan dugu erantzun, eta lehenengoa erdizka praktika osteko galdetegia ezin izan diegulako bidali ikasleei.

Beraz, eta aurtengo ikasturtean jaso ditugu datuak kontuan izanda, hauxe izan da erantzun nahi izan dugun galdera:

- Badago alderik iaiztik aurtenera ikasleek ETHAZI berrikuntza-ereduarekin duten hautematearekiko? Eredu honek euren formazioan duen eragina zertan antzematen dute?

6. METODOLOGIA

Aurtengo ikerketa Lanbide Heziketako ikasketak modalitate presentzialean burutzen dituzten ikastetxeetan egin da.

Aipatu bezala, ikerketaren helburuak baloratiboak eta propositiboak dira. Berrikuntza-estrategia nola eta zenbat garatu den ikertzea da helburua, beti ere ikasleen hautematetik abiatuta. Ikerketa metodologia kuantitatiboan oinarritzen da, osagarri modura interpretazio subjektiboak saiheste aldera informazio kualitatiboa jasotzea delarik (esan bezala, emaitzak ahalik eta gehien zehazteko helburuarekin).

laz finkatutako metodologiari jarraiki, aurten ere informazioa jasotzeko galdetegiak baliatu dira: ikasleentzat (praktika aurretik zein ostean erantzuteko) eta instruktoreentzat egokitutako galdetegiak prestatu dira. Prestaketa hauetan Tknikarekin kolaboratzen duten adituen eta irakasleen gomendioak hartu dira aintzat, iazko galdetegiak doitzeko eta fintzeko ezinbestekoa baitira galdetegiaren hartzaileen ekarpenak. Baina, aipatutako egoerak behartuta, ikasleei bidalitako praktika aurretiko galdetegiak baino ezin izan ditugu erabili datu bilketarako.

Informazioa, beraz, ikasleei praktika aurretik bidalitako galdetegietatik jaso da. Galdetegietan parte-hartzaileen anonimotua zorrotz gorde nahi izan da, eta ondorioz, galdetegiak saretik bidali diren arren betetze-momentua baino ez da erregistratu erantzunetan. Bestalde, galdetegietan mota ezberdinetako galderak erabili dira: batetik, subjektuak kokatzeko beharrezko galderak erabili dira; eta bestetik, ikerketaren helburua bete ahal izateko pertzepzioa jasotzera bideratutako galderak. Azken hauek, bi motakoak izan dira, itxiak, erantzun posible bakarrekoak eta beste batzuk irekiak. Galdera irekietan emandako erantzunak antolatzeke kategoriak sortu dira. Azkenik, ETHAZI hezkuntza-ereduaren hautematea baloratzeko galderak Tknikak berak eredia ezaugarritzeko erabiltzen dituen irizpideak hartu dira kontuan. Galdetegiak hasieratik Tknikako arduradunekin kontrastatu dira jaso nahi zen informazioa jasotzeko egokiak eta baliagarriak zirela bermatzeko.

Galdetegiak Google-Forms aplikazioaren bidez bidali dira saretik. Iaz ez bezala, galdetegiak zabaltzeko prozedura Tknikak hartu du bere gain. Egoitzan bertan ematen dituzten ikastaroak eta berrikuntza-koordinatzaileek egiten dituzten bilerak baliatu dira proiektua aurkeztu eta galdetegiak zabaltzeko. Ikertzaileek galdetegiaren helbideak edo linkak bidali ostean, ikastetxeetako zuzendaritzaren esku utzi da hauek euren ikasleei bideratzea.

Aurreko urteko galdetegiak bezala, aurten ere ikasleei praktika aurretik bidalitako galdetegiak ikasleen galdetegiak 44 galdera (item) zituen. Galdera berdinak mantendu dira, idazkera eta terminologia zuzendu da ulergarriagoa egiteko. Bestalde, hainbat galdera (ikastetxeen izenak eta familiak) datuak errazago jasotzeko egokitu dira.

Gehienetan, esaldiarekiko adostasunaren arabera 0 eta 4 bitarteko zenbakiak hautatu behar ziren:

- 0- Ez / Ez nago batere ados / Ezer ere ez
- 1- Ez nago ados / Gutxi
- 2- Zertxobait ados nago / Zertxobait
- 3- Ados nago / Nahiko-aski
- 4- Bai / Erabat ados nago / Asko

Bestalde, gaian sakontzeko galdera erdi-egituratuak ere egin dira, eskala berarekin erantzuteko. Bukatzeko, pare bat galdera ireki proposatu dira hartzailearen iritzia jasotzeko.

Datuak *Excel* programaren bidez jaso dira eta estatistiko deskribatzaileak erabili dira datuak ordenatzeko (*Batezbestekoa, Moda* eta *Desbideratze Estandarra*).

A) DATU BILKETA ETA GARBIKETA

Datuak 2020ko urtarriletik martxoaren hasiera bitartean bildu ziren. Datuak jaso ondoren, lehendabizi datuak doitu ziren, alegia, galdetegi baliogabeak baztertu (gaizki betetako galdetegiak, datu-faltagatik interpretatu ezin zirenak edo parte-hartzaileak identifikatzeko nahikoa informazioa eman ez zutenak). Hona horretarako jarraitutako estrategia:

Lehenik eta behin *Excel* zerrenda bateratuak osatu ziren euskaraz eta gaztelaniaz. Horretarako galdetegi ezberdinen sortutako artxiboak baliatu ziren. Aipatu behar da, galdetegitik *Excel* artxiboak sortzerakoan gorabeherak izan direla. *Google Forms* galdetegiak sortzen dituen *DRIVE*ko *Excel* artxiboek ez zituzten galdetegiko galdera guztiak jasotzen. Ondorioz, datuak .csv formatuan gorde behar izan dira eta formatu horretatik doitutako *Excel* artxibo osatuak sortu. Hala ere, nahiz eta erantzundako galdetegi guztiak baliagarriak izan diren, euskaraz erantzundako galdetegien 36, 37, 38, 39, 40, 41 eta 42 item-en erantzunak galdu egin dira.

Bestalde, ikasturte gorabeheratsu honek zaildu egin du ikastetxeetan ikerketaren jarraipena egitea. Ondorioz, ez da posible izan ikastetxe guztietan zenbat ikasleri pasa zaion galdetegia jakitea. Zehazki, galdetegiak 51 ikastetxe ezberdinetako ikasleek erantzun dituzte, eta ikastetxe hauetatik 30 ikastetxek argitu digute zenbat ikasleri pasa zizkieten galdetegiak; baina, ikastetxe hauetatik jasotako erantzunak, erantzun guztien (2508) % 81,5a izan dira.

Aipatutako 30 ikastetxe horien datuetan oinarrituta, galdetegiak bidalitako ikasleen % 83,86ak erantzun du. Beraz, esan daiteke nahiz eta galdetegiak zenbat ikasleengana iritsi diren jakin ez, jakin dugun kasuetan datuen fidagarritasuna handia dela.

DATU GLOBALAK

Erantzundako galdetegi kopurua:

2. Irudia: Ikasleen kopurua

	Euskaraz	Gazteleraz	OROTARA
Ikasleak	674	1834	2508

B) DATUEN TRATAERA

Behin datuak doitu eta behin betiko zerrendak lortu ondoren, hauek dira jarraitutako pausuak:

1. DATU KUANTITATIBOAK

Item ezberdinen bidez, baieztapenen inguruko adostasun-maila eskatu zaie ikasle, irakasle eta instruktoerei, 0 eta 4 bitarteko eskalan. Lortutako datuekin *Bataz bestekoa* (\bar{x}), *Moda* (M_o) eta *Desbideratze estandarra* (DS) kalkulatu da. Datu hauek taula banaketa-grafikoen bidez erakutsi dira.

2. DATU KUALITATIBOAK

Beste hainbat item bidez emaitza kualitatiboak lortu dira. Batetik, landu eta ebaluatutako zeharkako gaitasunez galdetu da eta erantzunak tauletan jaso dira. Bestetik, galdetegian jaso ez diren aspektuekiko ekarpenak eta bestelako iradokizunak egiteko aukera eskaini da galdetegi guztietako azken 2 itemetan. Bi item hauen erantzunak asko eta askotarikoak izan direnez, emaitzak kategorizatu egin behar izan ditugu. Hauek dira erabilitako kategoriak eta azpi-kategoriak:

- Metodologia / Enfokea
- Talde Lana / Lan Indibiduala
- Ebaluazioa
- Irakasleen Lana
- Konpetentziak / Edukiak
- Instalazioak / Baliabideak

7. EMAITZAK

Ondorengo ataletan parte hartu duten ikastetxeen eta hartzaile-mota desberdinetatik jasotako datuak aurkeztuko dira hurrenez-hurren:

7.1 IKASTETXEAK

Ikerketari buruzko informazioa eta galdetegiak betetzeko eskaera EAEko Lanbide Heziketako zentro guztietara, 64 zentroetara, bidali zen. Arrazoi ezberdinengatik hainbat ikastetxeek ez dute pasa galdetegirik, eta pasatu dituzten hainbatek ez digute esan zenbat ikasleei pasa zaien galdetegia. Azkenean, irakasleen galdetegiak 51 zentroetatik jaso dira.


Bestalde, EAEko 3 lurraldeetatik jaso dira ikasleen datuak (3. Irudia): gehienak Bizkaitik (%59) eta Gipuzkoa (%32) eta Arabatik gutxiago (%9).

Iazko datuekin alderatuta, datuen joera mantentzen dela esan daiteke. Iaz datuk erantzun dituzten ikasleen %54-a ziren bizkaitarrak, %36-a gipuzkoarrak eta %10-a Arabarrak, beraz, antzeko ordezkariak lortu dugu aurten ere.

Nahiz eta, iaz bezala, zentro bakoitzetik jaso den erantzun kopurua oso ezberdina

izan, esan liteke ikerketa honetan EAEko Lanbide Heziketako zentroen aniztasuna ordezkatu dela (ETHAZI eredia garatzen ari diren 64 zentroen parte-hartzea 79,7-koa izan da).


3. Irudia: Ikasleen jatorria



7.2 IKASLEAK


Ikerketan parte hartu duen ikasleen gehiengoak (%73) gazteleraz erantzun ditu galdetegiak. Generoari dagokionez (4. Irudia), gehienak gizonezkoak dira (%66) eta adinari dagokionez, ikasleen %84a 16-25 urte bitartekoa izan da (gainerakoak, 26-35 urte bitartekoak %10-a eta ikerketa honetan parte hartu duten ikasleen %6ak baino ez ditu 35 urte baino gehiago).

4. Irudia: Ikasleen ezaugarriak



Iazko datuen oso oso antzekoak dira aurtengoak ere: iaz, ikerketan parte hartu zuen ikasleen %70ak erantzun zuen gazteleraz, %66 ziren gizonezkoak eta %85ak zituen 16-25 urte bitartean. Datuen errepresentazioa ez da apenas aldatu iaiztik aurtenera.

5. Irudia: Ikasleen aurreko ikasketak




Titulazioari dagokionez (5. Irudia), ikasleen gehiengoak DBH (%30) edota Batxilergoa (%31) egin du. Baina, badira beste LHko Ziklo bat (%35) egindakoak edota Gradua ikasitakoak ere (%4). Esan behar da galdetegia erantzundako ikasleen %15-ak aurretik ETHAZI ereduan beste ziklo bat eginga zuela. Bukatzeko, aipatu behar da ikerketan parte hartutako ikasleen %38-ak lan esperientzia ere baduela.

Datu hauek ere iaizkoen oso antzekoak dira. Aipagarriena ikasleen ikasketen datuak dira: aurretik ETHAZI zikloa ikasitakoak iaiz %10-a ziren eta aurtun, berriz, %15-a.

6. Irudia: Ikasleen Zikloa (ezk.) eta Maila (esk.)

Atal honekin bukatzeko, azpimarratu behar da ikasleen galdetegia erantzun duten ikasleen %63-a Goi Mailako Zikloa egiten ari dela (hauek baitziren ikerketa honen hartzaile nagusiak) eta %33-a



Erdi Mailakoa. Baina, Oinarrizko Lanbide Hastapena egiten ari diren ikasleek ere erantzun dute. Bestalde, maila batean zein bestean (6. Irudia), denak 2. maila egiten ari diren ikasleak dira (% 100); izan ere, aurtengo ikerketan ETHAZI hezkuntza-ereduan dabilzan ikasleak praktikekiko duten pertzepzioa jasotzea zen helburua eta horretarako, 2. mailan egotea ezinbesteko baldintza da.

Iazko datuekin alderatuta, oso antzekoa da datuen banaketa. Ezberdintasunak hauek dira: iaz Goi mailan ikasle gehiago zeuden galdetegi erantzundakoen artean (%68) eta 1. mailan zegoen galdetegi erantzun zuen ikasleen % 40-a.

Bestalde (7. Irudia), galdetegi gehienak Fabrikazio Mekanikoko Zikloa egiten ari diren ikasleengandik jaso ditugu (%21,6); asko izan dira Administrazioa eta Kudeaketa (%13,46), zein Elektrizitatea eta Elektronika (%12,7) egiten ari diren ikasleek erantzundakoak ere. Gutxiago, baina modu esanguratsuan jaso ditugu ere Informatika eta Komunikazioak (%9,7), Gizarte eta Kultur Zerbitzuak (%8,78), Instalatze eta Mantentze Lanak (%6,82), Ostalaritza eta Turismoa (%5,7), Osasungintza (%5,18) eta Merkataritza eta Marketina (%4,5).

7. Irudia: Ikasleen Familia Profesionala



Aurreko urteko datuekin alderatuta badaude ezberdintasun txiki batzuk, esaterako Informatika eta Komunikazioetako edota Ostalaritza eta Turismoko ikasle gehiagok erantzun dutelako aurten iazko proportzioekin alderatuta; baina, iaz bezala, aurten ere, esan daiteke datuek ETHAZI-eredua Lanbide Heziketako familietan izaten ari den inplementazio-eritmoaren adierazgarriak direla.

ETHAZI-ereduarekiko balorazio kuantitatiboa

Galdetegi proposatutako baieztapenekiko ikasleek duten adostasun-maila jakin nahi izan da. Horrela, baieztapen bakoitzeko ondorengo eskalako balioak aukeratzea eskatu zaie:

- 0. Ez/Ez nago batere ados /Ezer ere ez
- 1. Ez nago ados/Gutxi
- 2. Zertxobait ados nago/ Zertxobait
- 3. Ados nago/ Nahiko-aski
- 4. Bai/Erabat ados nago/Asko

Lehenik eta behin, ikasleei galdetu zaie ETHAZI-ereduan oinarritutako zikloetan erronketan oinarritutako lanketa egiten duten (8. Irudia), eta ikasleen gehiengoak horrekiko adostasuna azaldu du ($\bar{X}=3,1$), erabateko adostasuna izan delarik gehien errepikatu dute erantzuna ($M_o=4$). Bestalde, erronkek Ikaste Emaitei erantzuten diotenarekiko adostasun-maila handiagoa da motibazioari erantzuten diotenarekikoa baino ($\bar{X}=2,8$ eta $\bar{X}=2,5$ hurrenez hurren), baina aldea oso txikia da eta beraz esan liteke bie erantzuten diela.

lazkoekin alderatuta, datuak oso antzekoak dira. Aldea ehunekoetan dago, beraz, esan daiteke ETHAZI-ereduaren oinarria den erronketan oinarritutako metodologiarekiko pertzepzioa ez dela aldatu iaiztik aurtenera.

8. Irudia: Erronketan oinarritutako lanketa

	1. (ETHAZI) Zikloan erronketan oinarritutako lanketa egin duzue.	2. Erronkek batez ere Ikaste Emaitei erantzuten diete.	3. Erronkek batez ere ikasleen motibazioari erantzuten diote.	4. Erronkek Ikaste Emaitei adina erantzuten diete ikasleen motibazioari.
\bar{x}	3,1	2,8	2,4	2,5
Mo	4,0	3,0	3,0	3,0
DS	0,7	1,4	1,1	1,0

Ondoren, talde-lanean aritzen diren edota erronkak modu koordinatuan planteatzen zaizkien jakiteko hainbat baieztapenen inguruko adostasun-mailaz galdetu zitzairen (9. Irudia). Oro har, adostasuna erakutsi dute bi aspektu horiekiko. Adostasuna edota erabateko adostasuna

9. Irudia: Talde lanaren balorazioa

	5. Irakasle taldearen harremana eta parte-hartzea proaktiboa, kolaboratiboa eta kohesionatua da.	6. Irakasle taldearen koordinazio ezak zure ikaste prozesuan modu negatiboan eragin du.	7. Irakasleok erronkak talde-lanean landu dituzue gelan.	8. Irakasle taldeak dinamika ezberdinak erabili ditu gelan taldeak sortzeko.	9. Taldean lan egiteak modu positiboan eragin du zure jarreran lana egiteko orduan.	10. Taldean lan egiteak modu positiboan eragin du zure ikaste emaitzen garapenean.
\bar{x}	2,6	2,1	3,2	2,4	2,7	2,6
Mo	3	3	4	3	3	3
DS	1,0	1,3	0,9	1,2	1,1	1,1

	11. Zure talde-lana modu sistematiko eta esanguratsuan ebaluatua izan da.	12. Erronketan oinarritutako lanketak zure bakarkako lana gutxiago baloratzea eragin du.	13. Erronketan oinarritutako lanketan, taldeen autonomian norberaren autonomian baino gehiago eragiten eta sakontzen da.	14. Ikasketak erronketan oinarritutako talde lanen bidez egitean, taldeen autonomian beste eragiten eta sakontzen da norberaren autonomian.	15. Erronketan oinarritutako lanketan taldeen lanaren plangintzan modu esanguratsuan eragiten da.	16. Erronketan oinarritutako lanketan talde-lanaren aldeko jarreraren eta gaitasunean eragiten eta sakontzen da.
\bar{x}	2,6	2,1	2,7	2,5	2,7	2,8
Mo	3	2	3	3	3	3,0
DS	1,1	1,3	1,0	1,0	0,9	0,9

agertzen dute talde-lanean aritzen direnarekiko ($\bar{X}=3,2$; $Mo=4$) eta ados daude irakasleen deskoordinazioak eragina izan duenarekin ($\bar{X}=2,1$; $Mo=3$).

Bestalde, talde-lanean aritzeak duen eraginaz galdetuta, adostasun-maila handiagoa erakutsi dute talde-lanak euren ikaste emaitzetan modu positiboan eragin duenarekiko ($\bar{X}=2,7$; $Mo=3$) euren bakarkako-lana gutxiago baloratu denarekiko baino ($\bar{X}=2,1$; $Mo=2$); eta talde-lana modu sistematikoan baloratu zaienarekin ados daude. Beraz, esan liteke talde-lanean aritzen direnaren ustea dutela, talde-lana sistematikoki ebaluatzen zaiela eta horrek ez duela bakarkako-lana gutxiago ebaluatzea eragiten. Bestalde, erronketan oinarritutako lanketan talde-lanaren aldeko jarreran eta gaitasunean eragiten eta sakontzen den galdetuta, gehienek horrekiko adostasuna agertzen dute ($Mo=3$).

Emaitza hauek iazkoekin alderatuta oso antzekoak dira; aldaketarik handiena irakasle-taldearen koordinazio ezak ikasleen ikaste-prozesuan duen eraginean ikusi da, iaztik aurtenera eragin negatiboa duenaren pertzepzioa igo baita: iazko datuak ziren $\bar{X}=1,9$; $Mo=2$; eta aurtengoak $\bar{X}=2,1$; $Mo=3$.

Beste baieztapen-sorta batekin, ikasleek kompetentzietan oinarritutako ikaste-irakaste prozesua nola bizi ote dituzten jakin nahi izan da (1210. Irudia). Ikasleak ados daude erronketan oinarritutako eredu honek euren pro-aktibitatean, sormenean eta ideiak garatzeko aukeran eragiten dutenarekin ($\bar{X}=2,7$; $\bar{X}=2,8$ eta $\bar{X}=2,8$ hurrenez hurren, eta hiru kasuetan $Mo=3$). Gainera, ados daude zeharkako gaitasunetan gaitasun teknikoetan adina edo gehiago eragiten denarekin ($Mo=3$); hala, gaitasun teknikoak zeharkakoak baino gehiago lantzen dutela dioen baieztapenaren aurrean adostasun txikia agertzen dute ($\bar{X}=2,4$; $Mo=2$).

10. Irudia: Kompetentzien ikuspegia

	17. Erronketan oinarritutako lanketaren bidez, ikaste prozesuarekiko jarrera proaktiboan eta inplikazioan gehiago eragiten da, beste ikaskuntza-ereduetan (beste metodologia batzuk erabiltzen direnean) baino.	18. Erronketan oinarritutako lanketarekin sormenean eragiten da.	19. Erronketan oinarritutako lanketan, zure ideiak adierazteko eta garatzeko aukera eskaini zaizu.	20. (ETHAZI) Zikloan gaitasun teknikoak zeharkakoan baino gehiago landu dituzu.	21. (ETHAZI) Zikloan gaitasun teknikoak, zeharkakoan beste landu dituzu.	22. Erronketan oinarritutako lanketan, beste ikaskuntza-ereduetan baino modu esanguratsuagoan eragiten da zeharkako gaitasunen garapenean.
\bar{x}	2,7	2,8	2,8	2,4	2,6	2,6
Mo	3	3	3	2	3	3
DS	1,0	1,0	1,0	1,0	1,0	1,0

Datu hauek iazkoen oso oso antzekoak dira, ia ia berdinak. Beraz, esan daiteke ETHAZI ereduaren kompetentzien lanketarekiko ikasleen pertzepzioa ez dela aldatu iaztik aurtenera.

Modu sistematikoan zeintzuk zeharkako gaitasun landu dituzten galdetuta, erantzun asko eta anitzak ematen dituzte. Argi dago zeharkako gaitasunen inguruan hiztegi eta terminologia berria eta aberatsa sortzen ari dela ETHAZI ereduaren. Hori erakuste aldera, datuak era laburtuan erakusten dira ondorengo taulan (11. Irudia).

Ikus daitekeenez, hauek dira gehien aipatu dituztenak: 394 ikaslek *talde-lana*, 324 ikaslek *autonomia* eta 224 ikaslek *komunikazioa*. Gutxiagotan bada ere, *gaitasun digitala* eta *ekimena* ere ikasle askok aipatzen dituzten zeharkako gaitasunak dira.

lazko galdetegiaren erantzunetan gertatu bezala, zeintzuk diren modu sistematikoan ebaluatu zaizkien zeharkako gaitasunak galdetuta, gaitasun berdinak eta dira gehien errepikatzen direna, baina ez hurrenkera horretan. Modu sistematikoan ebaluatzen diren zeharkako gaitasunen artean autonomia da gehien errepikatzen dena (307 aldiz), talde lana bigarrena (269 aldiz) eta komunikazioa hirugarrena (135 aldiz). Kasu guztietan lantzen dituztenak baino gutxiago.

11. Irudia: Zeharkako Kompetentzien lanketa eta ebaluazioa

23. Zeintzuk dira zure zikloan modu sistematikoan landu dituzun zeharkako gaitasunak?		24. Zeintzuk dira zure zikloan modu sistematikoan ebaluatzen diren zeharkako gaitasunak?	
Talde lana /Trabajo en equipo/Trabajo en grupo	394	Autonomía/Autonomía	307
Autonomía/Autonomía	324	Talde lana /Trabajo en equipo/Trabajo en grupo	269
Comunicación/Komunikazioa	224	Inplikazioa/Implicación	195
Puntualidad/Puntualtasuna	94	Comunicación/Komunikazioa	135
Inplikazioa/Implicación	79	Puntualidad/Puntualtasuna	81
Errespetua/Respeto	76	Jarrera/ Actitud	72
Gaitasun digitala/Competencias, habilidades digitales	73	Gaitasun digitala/Competencias, habilidades digitales	69
Iniziatiba/Iniciativa/Ekimena	61	Iniziatiba/Iniciativa/Ekimena	58
Jarrera/ Actitud	55	Errespetua/Respeto	50
Emprendizaje	49	Asistencia/Bertaratu	46
Compromiso social	44	Emprendizaje	43
Asistencia/Bertaratu	39	Compromiso social	39
Garbitasuna/Higiene/Limpieza	24	Antolaketa / Planificación/Kudeaketa	19
Valores	24	Resolucion de problemas/Arazoen ebazpena	18
Sormena/Creatividad/Imaginacion	22	Garbitasuna/Higiene/Limpieza	17
Resolucion de problemas/Arazoen ebazpena	20	Valores	14
Lidergoa/Liderazgo	17	Sormena/Creatividad/Imaginacion	13
Antolaketa / Planificación/Kudeaketa	8	Lidergoa/Liderazgo	11
Innovación/Originalidad	5	Innovación/Originalidad	11
Gatazken kudeaketa/Resolucion de conflictoss	5	Gatazken kudeaketa/Resolucion de conflictoss	3
Ez dakit/No se	14	Ez dakit/No se	24
Bat ere ez/Gutxi	17	Bat ere ez/Gutxi	5
Denak/Asko	8	Denak/Asko	6

Datu hauek iazkoekin alderatuta hainbat ondorio atera litezke. Bat eta nagusia, hauxe da: lantzen dituzten konpetentziak ez dira beti modu sistematikoan ebaluatzen, eta gainera, aurtengo datuek ondorioztatzen dutenez, batzuentzat modu sistematikoan ebaluatzen direnak ez dira gehien lantzen direnak. Iaz *komunikazioa*, *autonomia*, *inplikazioa*, *talde-lana*, *iniziatiba*, *gaitasun digitala* eta *antolaketa* azpimarratu zituzten. Aurtengo erantzunetan hauek guztiak aipatzen dituzte, baina talde-lanaren lanketak garrantzia handiagoa hartu du eta autonomia sistematikoki ebaluatzen dela esan badaiteke ere, ez da gehien lantzen dena, ematen duenez.

Datu orokor hauetatik at, ikasleek baliatzen duten terminologiari dagokionez (hemen ez dira guztiak sartu, txostena errazago irakurri ahal dadin), beste hainbat ondorio ere atera litezke. Zeharkako gaitasunak galdetuta hainbat eta hainbat gaitasun/ezaugarri/abilidade aipatzen dituzte. Pentsatzekoa da tokian-tokian, bakoitzak bere ikastetxean, baliatzen dituzten marko kontzeptualen arabera direla, ez hainbeste ETHAZI ereduaren partekatzen direnak. Bide interesgarria irekitzen du honek, gaitasun hauekin zer ari diren ulertzen eta nola ari diren ikastetxeko kulturara egokitzen aurrera begira aztertze gaia izan daitekeelarik (Eranskina I).

Ebaluaziori dagokionez (12. Irudia), ebaluazioaren helburu nagusia formatzailea denarekiko adostasun handiagoa erakusten dute ($\bar{x}=2,7$; $M_0=3$) helburu nagusia kalifikatzailea denarekiko

baino ($\bar{X}=2,4$; $Mo=3$); baina, aldea oso oso txikia da. Bestalde, talde lanera egindako ekarpena kontuan hartzen denarekiko adostasuna erakusten dute ($\bar{X}=2,5$; $Mo=3$), eta hau bat dator kalifikazioan batez ere euren bakarkako lana hartzen dela kontuan dioen esaldiarekiko erakusten duten adostasun-maila txikiarekin ($\bar{X}=2$; $Mo=2$). Adostasuna agertzen dute ere, ETHAZI-ereduan auto- eta ko-ebaluazioa beste ikaskuntza eredueta baino gehiago hartzen dela kontuan esaterakoan, eta baita beste ikaskuntza ereduakin alderatuz, ETHAZI zikloetako ebaluazioa hezitzaileagoa dela eta norbere ikaste-prozesura hobeto bideratu dela aipatzerakoan. Baina, aspektu hauekiko erakusten duten adostasun-maila 2 eta 3 artekoa da

12. Irudia: Ebaluazioa

	25. Erronken eta ikaskuntza-prozesuaren ebaluazioan helburua formazioa da batez ere.	26. Erronken eta ikaskuntza-prozesuaren helburu nagusia kalifikazioa da.	27. Ebaluazioa Ikasketa Emaizten garapenerako ezarritako zailtasun-mailarekiko koherentea da.	28. Ebaluazioan gelan lana egiteko modua (bakarka/taldeka) kontuan hartzen da (ebaluazio-ereduan zein kalifikazioetan).	29. Kalifikazioan batez ere bakarkako lana islatzen da.	30. Kalifikazioan zikloko Ikasketa Emaizten garapena kontuan hartu da.
\bar{x}	2,7	2,4	2,5	2,5	2,0	2,6
Mo	3	3	3	3	2	3
DS	1,0	1,0	1,0	1,1	1,2	1,0

	31. Kalifikazioan zikloko zeharkako kompetentzien garapena kontuan hartu da.	32. Kalifikazioan oso argi islatzen da zure ekarpena eta inplikazioa talde-lanean.	33. ETHAZI ereduari, ebaluatzerako garaian autoebaluazioa beste ikaskuntza eredueta baino gehiago hartzen da kontuan.	34. ETHAZI ereduari, ebaluatzerako garaian koebaluazioa beste ikaskuntza eredueta baino gehiago hartzen da kontuan.	35. Beste ikaskuntza ereduakin alderatuz, ETHAZI zikloetako ebaluazioa hezitzaileagoa da eta zure ikaste-prozesura hobeto bideratu da.
\bar{x}	2,6	2,5	2,4	2,5	2,5
Mo	3	3	3	3	3
DS	1,0	1,1	1,1	1,0	1,1

kasu guztietan ($\bar{X}=2,4$; $\bar{X}=2,5$ eta $\bar{X}=2,5$), aniztasun maila txikiarekin erantzunetan ($DS=1,1$; $DS=1,4$ eta $DS=1,1$).

Datu hauek iazkoekin alderatzerakoan, joerak errepikatzen direla ikusten da. Ebaluazioaren balio formatiboa hartzen dute aintzat, baina euren pertzepzioaren arabera, badirudi balio formatibo hau ez zaiola gailentzen ebaluazio kalifikatiboari. Bestalde, talde-lana ere ebaluatzen dela hautematen dute, bakarkako lana bakarrik ez dela ebaluatzen ondoriozta baitaiteke. Baina, auto- eta ko-ebaluazioak beste hezkuntza-ereduetan baino gehiago baliatzen diren galdetuta, iaz bezala adostasun maila zalantzazkoa da: nahiko ados eta ados tartean baitaude erantzun gehienak. Beraz, badirudi oraindik ere heteroebaluazioak pisu handia duela ETHAZI ereduak ikasleen pertzepzioaren baitan.


Azkenik, balorazio-orokor modura (13. Irudia), ondorengo aspektuekiko asetasun-maila baloratzea eskatu zen: *esfortzua, Ikaskuntza Emaizak lortzeko erraztasuna, irakasleek gelan betetzen duten rola, lortutako gaitasun teknikoak, zeharkako gaitasunak, talde-lana eta ETHAZI-zikloa* orohar. Guztiekiko asetasun-maila *handia* izan zen, emaitzarik errepikatuena (3 balioarekin), eta *tartekoa* bigarren emaitza errepikatuena (2 balioarekin).

Konparazioz, asetasun-maila handiena *Ikaskuntza Emaizak* lortzeko egindako esfortzuekiko eta lortutako *gaitasun teknikoekiko* eta *zeharkako gaitasunekiko* zein *talde-lanarekiko* adierazten dute; txikiena aldiz, *ikasleek gelan betetzen duten rola*rekiko. *Egiten ari diren ETHAZI zikloarekiko* asetasun-maila ere ez da hain handia gainerako galderekiko konparazioz.

(Aipatu behar da galdera hauek erantzun gabe gelditu diren ikasle asko daudela: 625 hain zuzen. Metodologian aipatu bezala, euskaraz erantzundako galdetegiaren arazoak izan ziren eta galdera-sorta hau erantzun gabe gelditu ziren hainbat ikasle).

13. Irudia: Balorazio Orokorra

	36. Baloratu ezazu zure asetasun-maila beste ikasketara-ereduekin alderatuta ziklo honetan egin duzun esfortzuarekiko:	37. Baloratu ezazu zure asetasun-maila ikaste emaitzak eskuratzeko erraztasunarekiko:	38. Baloratu ezazu zure asetasun-maila irakasleek gelan betetzen duten rolaarekiko:	39. Baloratu ezazu zure asetasun-maila lortu dituzun gaitasun teknikoekiko:	40. Baloratu ezazu zure asetasun-maila lortu dituzun zeharkako gaitasunarekiko:	41. Baloratu ezazu zure asetasun-maila talde-lanarekiko:	42. Baloratu ezazu zure asetasun-maila egiten ari zaren (ETHAZI) zikloarekiko:
0. Hutsa	94	88	126	69	92	127	155
1. Txikia	175	206	250	167	192	194	225
2. Tartekoa	531	677	613	610	642	533	566
3. Handia	801	698	637	784	739	721	667
4. Oso handi	282	214	257	253	218	308	270
Akatsdunak	625	625	625	625	625	625	625



Erantzun hauek bat egiten dute aurreko urteko erantzunekin gutxi gorabehera. Hurrenkera aldatzen da, baina azpimarratzen diren aspektuak berdinak dira. Beraz, badirudi ikasleen balorazio orokorra, ETHAZI ereduarekiko, ez dela asko aldatu urte batetik bestera eta, oro har, asteasun-maila handia dute lortzen ari diren emaitzetarako egiten ari diren esfortzuarekiko.

ETHAZI-ereduarekiko balorazio kualitatiboa

Azkenik ikasleei modu askean erantzuteko aukera eman zitzaien “Badago zure ustez egiten ari zaren ETHAZI zikloa baloratzeko galdetegi honetan jaso ez den aspektu esanguratsurik?” galderaren eta “Zure iradokizunak edota bestelako ekarpenak jasotzeko espazioa” itemaren bidez. Hurrenez hurren, 512 eta 321 ekarpen jaso dira, eta kategorietan banatu ondoren emaitza hauek azpimarratu daitezke:

- Metodologia / Enfokea

ETHAZI ereduarekiko kontrako eta aldeko iritzia jaso dira. Eredua berea teoriarik edota paperean oso baliagarria eta interesgarria dela aipatzen da, baina aplikazioan ezinak edota oztupoak ikusten dira. Iazko emaitzetan baino sarriago aipatzen da irakasle taldeen eta erronken antolaketaren deskoordinazioa. Materiei eta erronkei erantzuteko denboraren kudeaketa ezegokia bizi du hainbat ikasle eta eredu honek ikasleengan ezinegona sortzen duela aipatzen duenik ere bada. Baina, iaz bezala, hainbatek eredu hau goraiatzen dute eta

adin txikiagoetara zabaldu beharko litzatekeela dioten ahotsak ere nabarmentzen dira. Batez ere, iaz bezala, hainbatek aipatzen duelako lan egiteko modu ezberdin hauetara egokitzea ez dela erraza eta horrek ikaskuntza zailtzen duela.

- Talde Lana / Lan Indibiduala

Talde-lanari dagokionez, iaz bezala, ikasleek askotan adierazten dute talde-lanari ematen zaion garrantziaren eta horrek ebaluazioan duen pisuaren artean. Uste dute talde-lanetan ez dela bakoitzak egindako lana behar bezala ebaluatzen, alegia, talde-lanen jarraipena ez dela behar bezala egiten. Bakarkako lana baino, ebaluazioan talde-lana lehenesten dela uste da, sistema honek alferrak edota esfortzu gutxiago egiten dutenak faboratzen dituelakoan. Talde-lanarekiko kezka handia erakusten dute ikasleek; iaz bezala, ETHAZI ereduari buruzko adierazpenetan gehien errepikatzen den aspektua da hau.

- Ebaluazioa

Ebaluazioari dagokionez, iazko erantzunetan bezala, batez ere taldean egindako lanaren kalifikazioa aipatzen da, bakoitzaren lana ez delakoan behar bezala kontuan hartzen. Ebaluazioak indibidualizatuagoa izan beharko lukeela aipatzen da, eta baita kontraesana dela ETHAZI bidezko ikasketetan azterketak egitea. Ikaskuntzari dagokionez, erantzunetan sumatzen da ezberdin ikasten denaren jabetza, baina horren ebaluazioarekiko adierazpenetan, iazkoetan bezala, lana egiteko moduaren eta ebaluazio-ereduaren arteko kontraesanak nabarmentzen dira.

- Irakasleen Lana

Irakasleen lanari lotutako ekarpenak izan dira aipatu diren gehienak metodologiarekin eta ebaluazioarekin lotutakoekin batera. Egindako ekarpenen artean, irakasleen arteko koordinazio falta eta hainbat irakaslek erakusten duten inplikazio falta azpimarratzen dira. Hainbat irakaslek ETHAZI ereduarekiko formazio-falta erakusten dutela aipatzen duenik bada, baina gehiagotan errepikatzen dute euren rola ez dela behar bezain laguntzailea prozesuan zehar. Iaz bezala, aurtan ere askotan errepikatzen da irakasleen rola arekiko eta euren arteko koordinazioarekiko duten pertzepzio negatiboa.

- Konpetentziak / Edukiak

Zeharkako gaitasunei ematen zaien garrantzia kontuan hartuta, gutxi baloratzen direla esaten da eta behin baino gehiagotan azpimarratzen da ikasleen aurrezagutzak ez direla egokitzen erronketan eskatzen den zailtasun-mailara.

- Instalazioak / Baliabideak

Ikasleen galdetegiaren kategorian honekiko ekarpen gutxi egin dira, baina hainbatetan jaso da azpiegiturak hobetzeko beharra. Material grafikoak hobetzea eskatzen duenik bada, baina batez ere, gelak eta espazioak egokitzea eskatzen da, mahaiak, paretak etab. lan egiteko modura egokitzea. Dena dela, gehien errepikatzen den eskaera hau da: tailerrera erraminta gehiago eramatea.

8. ONDORIOAK

Aurtengo ikerketaren helburu nagusia zen iaz diseinatutako ETHAZI ereduaren ebaluazio-prozesua eta ebaluaziorako tresnak doitzea. Hasierako helburuei ezin izan zaie bere osotasunean erantzun aurtengo ikasturteren berezitasunek ez digutelako utzi ikerketa aurreikusi bezala gauzatzen. Hala, eredu hau ebaluatzeko gakoaren diren enpresa-instruktoereengana iristeko estrategia ezin izan dugu behar bezala diseinatu, eta noski, gauzatu gabe gelditu da. Bestalde, aurtengo ekarpena ikasleek praktikekiko duten hautematea jasotzea zen, aurrera begira, ETHAZI ereduak praktiketan duen eraginarekiko pertzepzioa baloratu ahal izateko. Baina, sarreraren aipatu bezala, konfinamenduak ikasleen praktikaldia enpresetan normaltasunez gauzatzea galarazi du, eta beraz, ikerketaren diseinuan aurreikusi bezala praktika osteko galdetegiak zabaldu ezinik gelditu gara. Arazoak eta ezustekoak kontuan izanda, 2508 ikasleren erantzunak jaso ditugu eta datu hauek iaz jasotakoekin alderatzea izan da aurtengo ikerketaren ekarpen nagusia. Hala, orohar, esan daiteke, iaz bezala, ikasleen parte-hartzeak ez duela Lanbide Heziketako ikasleria bere osotasunean ordezkatzeko, baina ETHAZI-ereduan parte hartzen ari diren ikastetxeen aniztasuna eta zikloen garapen-maila islatu dira jasotako erantzunetan.

ETHAZI berrikuntza-ereduaren balorazioarekin hasita, ikasleek ereduaren oinarri didaktiko-metodologikoarekiko duten pertzepzioa iaztik aurtenera aldatu den jakin nahi izan da.

- Iaz ikasleek emandako erantzunetatik ondorioztatu genuen, ikasleek hautematen dutela ETHAZI-ereduaren bidez bideratzen diren ikaste-irakaste prozesuetan, ETHAZI-ereduan zeharkako kompetentziak beste modu tradizionaletan baino modu eraginkorragoan garatzen direla, kompetentzia teknikoak bestelako hezkuntza-ereduetan beste edo gehiago lantzen direlarik. Bestalde, ikusi genuen ere, ikasleak gai zirela sistematikoki landu edota ebaluatzen zaizkien (dituzten) zeharkako kompetentziak identifikatzeko. Aurtengo emaitzek ondorio hauek aberasteko balio izan dute. Zeharkako kompetentzien lanketan hainbat ezaugarri eta gaitasun aipatzen dituzte ikasleek. ETHAZI ereduaren lantzen diren zeharkako kompetentzia nagusien txapelpean, adierazle edota ezaugarri bezala identifikatu edota ezaugarritu daitezkeen ahalmenak aipatu dituzte. Argi dago, beraz, tokian-tokian ezberdin ulertzen edota ezaugarritzen ari direla ETHAZI hezkuntza-ereduan definitu diren zeharkako gaitasunak eta hori ikaste-irakaste prozesuetan kultura aldaketa gertatzen ari denaren seinale izan daiteke.
- Aldi berean baina, gaitasun horien lanketaren eta ebaluazioaren artean kontraesanak ikusten jarraitzen dute ikasleek. Ez dira ebaluatzen landu beste, eta ebaluazioaren garrantzia handiagoa ematen zaie gutxiago lantzen direnei. *Talde lanaren* lanketaren eta ebaluazioaren arteko desorekak ikasleen hautematen negatiboan pisu handia izaten jarraitzen du. Badirudi zeharkako gaitasun honek lanketan, eta bereziki, ebaluazioak, ezinegona eta kezka eragiten duela ikasleengan. Aldiz, *autonomia* sistematiko ebaluatu eta lantzen den gaitasuna dela dirudi. Iaz baino indar gehiagorekin azpimarratu dute aurtengoa.

- ETHAZI-ereduaren oinarri didaktiko-metodologikoei buruz galdetzerakoan, ereduaren ezaugarriak dira erronka-bidezko ikaskuntzan oinarritzen dela eta ikaste prozesuak talde-lanean burutzen direla. Iaz bezala aurten ere, ikasleek adostasun-maila handia erakutsi dute ezaugarri horiekiko. Baina, aurten ere errepikatzen da ikasleek iaz modu negatiboan hautematen zuten bizipena: irakasle-taldeak lan egiteko modua. Irakasleen arteko deskoordinazioa eta erronkak garatzeko dituzten modu ezberdinak azpimarratzen dituzte (hainbat irakaslek ez dutela formazio egokia edota ez dutela motibaziorik aipatuz). Hainbatetan aipatzen dute, gainera, ez dutela nahiko aurrezagutzarik erronken eskakizun-mailari erantzuteko.
- Bestalde, iaz bezala aurten ere, hainbaten erantzunetatik ondoriozta liteke ETHAZI-ereduan dabilzan ikasleak motibatuagoak daudela; eredia adin goiztiagotarra zabaltzea eskatzen baitute.
- Bukatzeko, ikastetxeen antolaketarekiko eta baliabideekiko ETHAZI-ereduan dabilzan ikasleen hautemateari buruzko iritziak ere jaso ditugu. Iaz bezala, ikasleek ez dute aspektu hauetan jartzen aurrekoetan besteko arretarik. Baina, azpimarratzen dituzte baliabideen mugak eta bereziki ikasleei arreta eskaintzeko ezinak. Ikasleen ahotsetan, irakasleak sarritan ez dira gai gelako dinamikak (esaterako, ikasleen arteko harremanak) zaindu edota kudeatzeko eta horrek ezinegon eragiten diela argi dago.

Laburtuz, esan daiteke iaz hautemandako joerak bete direla aurten ere. Ikasleek, oro har, ontzat ematen dute ETHAZI-eredua eta asetasun-maila handia erakusten dute hezkuntza-eredu honen helburuekiko. Baina, inplementazioan zailtasunak ikusten dira, bereziki, zeharkako gaitasunen erregulazioan.

Bestalde, ETHAZI ereduak praktikan duen inpaktua neurtu gabe gelditu gara aurten ere eta hori eredu honen arrakasta-mailaren gako nagusietakoa dela ez dago dudarik. Ikerketadiseinuari begira, lehenbailehen egokitu eta doitu beharreko aspektua da hori inondik ere.

9. ETHAZI-EREDUAREN EBALUAZIO JARRAIA EGITEKO GAKOAK

laz diseinatutako ikerketak eta aurtengo ahaleginak, ebaluazio-jarraia egiteko estrategia garatzeak merezi duela ondorioztatu da. Horretarako, ikerketa honetan ikusi ziren eta aurtenguztiz gainditu ezin izan ditugun hainbat ahulgune azpimarratzea beharrezkoa da:

1. METODOLOGIA

ETHAZI hezkuntza-ereduaren bilakaera ikusteko galdetegi bidezko ebaluazioa egokia dela ikusi da. Aurrera begira, baina, badira kontuan hartu beharreko aspektuak:

- Galdetegiak bi ikasturtetik behin egiteko aukera aztertu beharko litzatekeela pentsatzen jarraiten dugu; 2. mailako ikasleen kasuan, epe ezberdinetan: ikasturte hasieran eta bukaeran. Horrela, ETHAZI-ereduan ikasketak egin dituzten ikasleek euren praktiken inguruan duten iritzia baloratu ahal izango da.
- Etorkizunean interesgarria litzateke ikerketa Lanbide Hastapenean, modalitate Dualean eta Urrutiko Lanbide Heziketan ari direnengana ere zabaltzea. Horretarako kontuan hartu beharreko aldagaien konplexutasuna handia da, baina estrategia egokitu liteke datu-bilketa esanguratsua egiteko.
- Galdetegiaren emaitzak hobeto interpretatzeko asko lagunduko luke kolektibo ezberdinetako kideei elkarrizketak egitea. Tokian tokiko datuak iragazita, datuen interpretazioa zehatzagoa eta osoagoa izango litzateke.

2. ENPRESA-INSTRUKTOREAK

Kolektibo honengana iristeko aurtenguztiz diseinatutako estrategia gauzatu behar da. Galdetegia doitu da, baina kolektibo horrengana iritsi ezinik gelditu gara.

3. AURTEN IKASLEEN AHOTSA JASOTZERA KOAN IAZKO SORTUTAKO GALDEREK PISU GEHIAGO HARTU DUTE:

- Zer egin daiteke erronkak ikasleen behar eta aurrezagutzetara hobeto doitzeko?
- Zer egin daiteke ebaluazioa ikasleentzat esanguratsua izan dadin?
- Nolako formazioa behar dute irakasleek ikasleen talde-lanak hobeto kudeatu eta ebaluatzeko?
- Nola landu daiteke irakasleen profila ikasleen bidelagun izan daitezen?
- Zer egin daiteke irakasleen arteko koordinazioa eraginkorragoa izan dadin?
- Nola alda dezakete zuzendaritza-taldeek ikastetxeetako antolaketa irakasleen lana erosoagoa izan dadin?
-

GEHIGARRIA I

23. Zeintzuk dira zure zikloan modu sistematikoan landu dituzun zeharkako gaitasunak?	MAIZTASUNA	24. Zeintzuk dira zure zikloan modu sistematikoan ebaluatu diren zeharkako gaitasunak?	MAIZTASUNA
Talde lana /Trabajo en equipo/Trabajo en grupo	394	Talde lana /Trabajo en equipo/Trabajo en grupo	269
Colaboracion	5	Colaboracion	3
Compañerismo	19	Compañerismo	10
Cooperacion	3	Cooperacion	2
Elkarlana	2	Elkarlana	3
Habilidades sociales	4	Habilidades sociales	3
Habilidades grupales	3	Habilidades grupales	2
Convivencia	1	Convivencia	0
Autonomía/Autonomia	324	Autonomía/Autonomia	307
Autosuficiencia	1	Autosuficiencia	0
Habilidades individuales	1	Habilidades individuales	2
Autoaprendizaje	1	Autoaprendizaje	2
Audtodidacta	1	Audtodidacta	0
Comunicación/Komunikazioa	224	Comunicación/Komunikazioa	135
Ahozko komunikazioa/Expresion oral	100	Ahozko komunikazioa/Expresion oral	90
Lotsa galdu	2	Lotsa galdu	0
Mejora lectora	3	Mejora lectora	7
Oratoria	1	Oratoria	1
Gaitasun digitala/Competencias, habilidades digitales	73	Gaitasun digitala/Competencias, habilidades digitales	69
Iniziatiba/Iniciativa/Ekimena	61	Iniziatiba/Iniciativa/Ekimena	58
Toma de decisiones	15	Toma de decisiones	10
Emprendizaje	49	Emprendizaje	43
Sormena/Creatividad/Imaginacion	22	Sormena/Creatividad/Imaginacion	13
Resolucion de problemas/Arazoen ebazpena	20	Resolucion de problemas/Arazoen ebazpena	18
Lidergoa/Liderazgo	17	Lidergoa/Liderazgo	11
Antolaketa / Planificación/Kudeaketa	8	Antolaketa / Planificación/Kudeaketa	19
Innovación/Originalidad	5	Innovación/Originalidad	11
Gatazken kudeaketa/Resolucion de conflictoss	5	Gatazken kudeaketa/Resolucion de conflictoss	3
Jarrera/ Actitud	55	Jarrera/ Actitud	72
Adeitasuna	1	Adeitasuna	0
Adostasuna	1	Adostasuna	0
Asistencia/Bertaratu	39	Asistencia/Bertaratu	46
Asertibitatea/Asertividad	10	Asertibitatea/Asertividad	7
Capacidad de trabakp	1	Capacidad de trabakp	0
Comportamiento	6	Comportamiento	13
Compromiso social	44	Compromiso social	39
Competitividad	2	Competitividad	1
Compromiso	55	Compromiso	8
Escucha activa/Entzute aktiboa	10	Escucha activa/Entzute aktiboa	4
Empatia/Empatía	16	Empatia/Empatía	4
Erantzukizuna/Ardura	3	Erantzukizuna/Ardura	0
Erresilientzia/Resiliencia	4	Erresilientzia/Resiliencia	1
Errespetua/Respeto	76	Errespetua/Respeto	50
Esfuerzo	3	Esfuerzo	1
Flexibilitatea	1	Flexibilitatea	0
Inplikazioa/Implicación	79	Inplikazioa/Implicación	195
Impronta personal	1	Impronta personal	1
Independencia	1	Independencia	3
Interes	1	Interes	1
Honestidad	1	Honestidad	1
Humildad	1	Humildad	1
Garbitasuna/Higiene/Limpieza	24	Garbitasuna/Higiene/Limpieza	17
Nigan	61	Nigan	53
Participación	6	Participación	8
Pazientzia/Paciencia	10	Pazientzia/Paciencia	0
Positibismo	1	Positibismo	1
Puntualidad/Puntualtasuna	94	Puntualidad/Puntualtasuna	81
Sentimenduen eta frustrazioen jectioa	1	Sentimenduen eta frustrazioen jectioa	0
Sensibilidad	1	Sensibilidad	1
Seriedad	2	Seriedad	1
Superación	1	Superación	1
Valores	24	Valores	14